

## FUNTSEZKO JARDUERAK

*Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?*

Gure egitasmoa burutzerako garaian hainbat jarduera burutu beharko ditugu:

Lehenik eta behin sortuko dugun produktuak eduki ditzaken lehiakideak zeintzuk diren pentsatu beharko dugu, beraiekiko indargundeak eta ahuleziak zeintzuk diren antzemateko, indarguneak bultzada moduan aprobeztatzeko eta ahuleziak nola gestionatu erabakitzeko.

Ondoren negozio eredu bat prestatu beharko dugu eta horrekin batera gure produktuaren prototipatzea ere aurrera eraman beharko da. Behin hori eginda aurrekontu bat egin beharko dugu, eta hori eginda edukitzean hornitzaileekin jarriko gara kontaktuan produktua garatzeko eta azkenik merkaturatzeko.



Garrantzizkoa da azpimarratzea hau guztia egin eta gero gure sareetako eta webguneko presentzia aktibo egon beharko dela. Bezeroen feedback-a jasotzea gustatuko litzaiguke batetik, eta bestetik, berriak ditugunean edo zerbait kontatu nahi degunean beraiekin komunikatu ahal izatea.



Behin bezeroen feedback-a jasotzen dugunean, azterketa bat egin beharko dugu, ondo/gaizki egin ditugun gauzak identifikatzeko, hobetzeko edo mantentzeko ekintzak banatzeko, gure kalitatea (bezeroei begira) eta bide batez gure irabaziak ere maximizatzeko.